







*Arlo publikotik  
inpaktua ereiten.*



ARLO PUBLIKOTIK INPAKTUA EREITEN..

# *FEISen paper katalitikoa.*


---

1.	Seed Capital Bizkaiari eta FEISi buruz	4
2.	2024an partaidetuak: ikuspegi globala	10
3.	Inbertsio berriak	16
4.	Inpaktu ekosistemari egindako ekarpena	28
5.	Partaidetuen inpaktua	34
6.	Perspektibak	44

---

01.





# Seed Capital Bizkaia eta FEIS.


---

**Seed  
Capital  
Bizkaiaren  
FEIS Funtza  
funtsezkoa  
izan da  
Bizkaiko  
enpresa-  
eta gizarte-  
sarea  
dinamiza-  
tzeko**

Seed Capital Bizkaia Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomia Sustatzeko Sailari atxikitako foru-sozietate publikoa da, eta 35 urte baino gehiagoko esperientzia du ekintzailletza, berrikuntza eta enplegu-sorrera sustatzen lurraldean. Sortu zenetik, enpresa-ehunaren beharretara egokitutako hainbat finantza-funtz eta -tresna garatu ditu.



2014an, eta 2008ko krisiaren ondoren Hirugarren Sektoreak zituen erronkei erantzuteko, Seed Capitalek Ekintzailletza eta Giza-Inpaktu Funtza (FEIS) sortu zuen, Espainian administrazio publiko batek sustatutako inpaktuari buruzko lehen funtza, giza-inpaktu positiboa duten enpresak sortzen eta finkatzen laguntzeko.

**Enpleguaren sorreran, berrikuntza sozial eta jasangarrian eta tokiko talentua indartzean zentratutako ikuspegiak nabarmen lagundu du lurraldearen garapen integralean.**





Sortu zenetik,  
2.712.360 €  
inbertitu ditu  
gizarte arloko 17  
enpresatan.




## 01. Seed Capital Bizkaiari eta FEISi buruz

# FEISen ibilbide historikoa


### Testuingurua

2024ko ekitaldian, Seed Capital Bizkaiak Arrisku Kapitaleko 6 Funts, Mikrofinantzen arloko erakunde bat eta Crowdfunding plataforma bat kudeatu ditu.





02.



PARTAI DETUAK 2024AN

Ikuspegi  
globala.

---

# Inbertsioa partaidetu bakoitzeko

2024KO ABENDUAN

FEISek kapital katalitiko gisa jokutzen du, eta inbertitzaile tradizional batek baino arrisku handiagoa hartzen du, inpaktu potentzial handiko startup-en aldeko apustua egiten baitu.

## INBERTSIOA GUZTIRA


# 2.612.360 €

BASQ SNEAKERS S.L.	EVOLV S.L.	IMPULSO COGNITIVO S.L.	INNOVATIVE CSR TECHNOLOGIES AND CONSULTING (APLANET)
100.000 €	350.000 €	50.000 €	175.000 €

INSULCLOUD S.L.	KOIKI S.L.	KUNSTHAL	JBIKARE S.L.
250.000 €	550.000 €	137.000 €	150.000 €

HOSTEL BOROBILTZEN S.L.U.	DELIKATETXE S.COOP	ITSASLUR CENTRO DE INNOVACIÓN AGROALIMENTARIA	URBEGI INSERCIÓN
200.000 €	150.000 €	30.000 €	180.000 €

URBEGI IPM	AXALKO S.L.	VIRTUAL WEB AGROFRAME (COOMETAS)
140.000 €	49.860 €	100.000 €



## FEISen inpaktuak enpresetan

**371**

pertsona enplegatuta  
ekintzailletzetan.

INBERTSIOA 2024AN:

**300.000 €**

**337**

enplegu zuzen eta zeharkako  
desgaitasuna duten  
pertsontzat.


FAKTURAZIOA 2024AN:


**22.004.610 €**

**315**


Enplegu sortuta  
Bizkaian.

# Inbertsioa partaidetuetan GJH bakoitzeko





03.



# Inbertsio berriak.


---


## 2024ko ekitaldian, FEISen 300.000 €-ko inbertsioak onartu dira 2 enpresatan.

2023an onartu eta 2024an ordaindutako inbertsioa **Hostel Borobiltzen, SLU** enpresan egin da. Enpresa horren jarduera gizarte bazterketako egoeran dauden pertsonei, batez ere emakumeei, laguntzeko programei laguntzeko balioko duten ostatu eta ostalaritza baliabideak abian jartzea, ustiatzea eta kudeatzea da. Gizarteak bazterketa ariskuan dauden emakumeen gizarteratzea sustatzera bideratzen du lana, hau da, 1. GJHan (pobreziaren aurkako borroka), 10.ean (desberdintasunen aurkako borroka) eta 5.ean (genero berdintasuna) zentratuta.

Beste inbertsio bat **Virtual Web Agroframe** enpresan egin zen, **Coometas** plataformarako. 2018an sortutako Espainiako startup-ak plataforma teknologikoa eskaintzen du

2024an inbertsioa jaso duten enpresek ostalaritzaren eta elikaduraren sektoreetan esku hartzen dute.



A stylized illustration of a plant with a vertical stem. At the top is a large red semi-circle representing a flower or fruit. Below it is a dark red circle above a white semi-circle. Further down is a red leaf. The stem ends in a wavy line at the bottom.

pertsona kalteberei zuzenduta elikagai-laguntzak eta funtsezko produktuak kudeatzeko. Helburua elikagaien entrega optimizatzea eta digitalizatzea da, tokiko saltokiak GKEekin konektatuz, hondakinak murrizteko eta behar dutenek laguntza modu eraginkorragoan jasotzen dutela bermatzeko.

Inbertsio berri horrek gosearen aurkako borrokan (2. GJHa) eta desberdintasunen murrizketan (10. GJHa) jartzen du arreta, ekonomia zirkularreko sistema bat ezarri (12. GJHa). Sistema horrek, aldi berean, CO2aren ekoizpena saihesten du (11. GJHa), eta, azkenik, gosearen arazoari sektore anitzeko erantzunak ematea sustatzen du (17. GJHa).

Partaidetu berriek pobreziaren aurkako borrokan (1. GJHa), gosearen aurkako borrokan (2. GJHa), genero berdintasunaren sustapenean (5. GJHa), ingurumenaren hobekuntzan (11. GJHa) eta ekonomia zirkularren sustapenean (12. GJHa) jartzen dute arreta, GJHak lortzeko aliantzak sustatzeaz gain (17. GJHa).

## Coometas

coometas

GJH

● 2. GJH

ZERO GOSEA

● 10. GJH

DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA

● 11. GJH

HIRI ETA KOMUNITATE  
JASANGARRIAK

● 12. GJH

EKOIZPEN ETA KONTSUMO  
ARDURATSUAK


● 17. GJH

ALIANZAK HELBURUAK LORTZEKO



Coometas 2018an abian jarritako “Encantado de Comerte” ekimenaren bilakaera gisa sortu zen, elikagaien donazio sistema eraldatzeko asmoz. 2020an, sortzaileek –Gabriel Ramasek, Enrique de Miguelek eta Adrian Espinosak– harago joatea erabaki zuten, elikagaien soberakinak prezio merkeetan salduz. Proiektuak hirugarren sektoreko erakundeak eta tokiko saltokiak hartzen ditu bame, elikadurarako sarbidea eta pertsona zaurgarrien duintasuna modu kolektiboan birpentsatzeko.

Coometasen esku-hartzea hiru ardatz operatiboren gainean egituratzen da: lehenik, sare solidario horrekin bat egiteko prest dauden saltoki parte-hartzaileen bilaketa eta kudeaketa. Horrek, salmentak hobetzeaz gain, aldaketa sozialaren funtsezko eragile gisa kokatzen ditu.



## Coometas

Bigarrenik, giza-erakunde bazkideekiko lankidetzeta, familia onuradunak bideratzeaz gain, haien prestakuntzan eta laguntzan ere parte hartzen baitute, konfiantzazko, jarraipeneko eta baterako ikaskuntzako harremanak sortuz. Eta, hirugarrenik, eraginkortasuna, trazabilitatea, gardentasuna eta kostu operatiboen murrizketa bermatuz prozesu osoa automatizatzeke eta errazteko aukera ematen duen plataforma teknologiko baten kudeaketa. Gainera, familientzako prestakuntza saioak egiten dira, elikadura arloko ohitura osasungarriak eta jasagarriak sustatuz.

Azken batean, Coometasek, gizarte berrikuntzatik soluzio eraginkorrak artikulatuz gizarte, ingurumen eta ekonomia arloko erronka ugariei erantzuten dien zirkulu birtuosoak sortzen ditu.

**Coometasek,  
gizarte  
berrikuntzatik  
soluzio  
eraginkorrak  
artikulatuz  
gizarte,  
ingurumen eta  
ekonomia arloko  
erronka ugariei  
erantzuten dien  
zirkulu birtuosoak  
sortzen ditu.**

Bere ereduak nabarmen hobetzen du zaurgarritasun egoeran dauden familiek elikadura osasungarria izateko aukera, elikadura arloko segurtasuna indartzen du eta arrakala soziala murrizten laguntzen du, 2. GJHarekin (Zero gosea) eta 10. GJHarekin (Desberdintasunen murrizketa) bat etorritik. Aldi berean, eskura dauden elikadura baliabideen kudeaketa eraginkorragoa sustatzen du, eta, horren ondorioz, elikagaiak alferrik galtzea murrizten da, eta CO<sub>2</sub> emisioak saihesten dira, ingurunean inpaktu positiboak eraginez, 12. GJHaren ildotik (Ekoizpen eta kontsumo arduratsua).

Coometasek tokiko ekonomiak ere indartzen ditu, hurbileko merkataritzaren salmentak handitzen dituelako eta hiri eta komunitate sarea dinamizatzen duelako, 11. GJHan (Hiri eta komunitate jasagarriak) lagunduz.



Azkenik, bere balio katean zehar enpresen eta gizarte erakundeen arteko sare egonkorra eta lankidetzazkoa egituratzeko duen gaitasunak 17. GJHaren (Helburuak lortzeko aliantzak) adibide zehatz bihurtzen du, teknologiak eta lankidetzak elikadura arloko laguntza ulertzeko eta kudeatzeko modua sakon eralda dezaketela erakutsiz.

Bere ereduak nabarmen hobetzen du zaurgarritasun egoeran dauden familiek elikadura osasungarria izateko aukera, elikadura arloko segurtasuna indartzen du eta arrakala soziala murrizten laguntzen du.

## Borobiltzen-Lamia hostela



### GJH

1. GJH

POBREZIAREN AMAIERA


5. GJH

GENERO  
BERDINTASUNA

10. GJH

DESBERDINTASUNEN MURRIZKETA

**LaMia BBK Women Hostel** Bilbon sortu zen komunitatean gizarteratzearen, berdintasunaren eta berrikuntzaren alde lan egiten duen **Bizitegi** elkartetik. Proposamena 2030 Agendaren Garapen Jasangarrirako Helburuekin bat datozen proiektuak bultzatzen dituen BBK Kuna 2030 Kidea programaren barruan sortu da. LaMia erronka bikoitz bati emandako erantzun aitzindaria da: alde batetik, emakume bidaiarientzako ostatu seguru eta duinak sortzeko beharra; eta, bestetik, etxerik gabeko emakumei (EGE) gizarteratzeko eta laneratzeko benetako aukerak eskaintzeko premia. Gizarte-ekonomiako proiektu gisa sortua, ostatua Bilboko Errekalde auzoan dago, eta logika eraldatzailearekin jarduten du, turismoa, erauzketa-jarduera izan beharrean, justizia sozialaren eta emakumeen ahalduntzearen motor bihurtzen da.



## Borobiltzen-Lamia hostela

Ildo horretan, haren xedeak zuzenean laguntzen dio 10. GJHari (desberdintasunen murrizketa) eta zeharka genero berdintasunaren gaiari (5. GJH).

LaMia ez da bertatik igarotzeko leku soilik: ostatu turistikoa eta bazterketa egoeran dauden emakumeentzako gizarteratze ibilbidea konbinatzen dituen espazio bizia da, zaindua, emakumeentzat soilik. Harrera eta laguntza pertsonalizatuko sistemaren bidez, emakumeak, euren oinarriko beharrak asetzeaz gain, hazkunde pertsonal eta laboralerako aukera ere ematen zaien ingurune egonkorrean sartzen dira. Horietako asko ostatuaren eguneroko funtzionamenduan integratzen dira, zuzeneko kontratuen bidez edo garbitegia, garbiketa eta catering zerbitzuak eskaintzen dituzten gizarte-enpresekin lankidetzan arituz.

Ostatu turistikoa  
eta bazterketa  
egoeran dauden  
emakumeentzak  
o gizarteratze  
ibilbidea  
konbinatzen  
dituen espazio  
bizia da,  
zaindua,  
emakumeentzat  
soilik

Egitura horrek diru-sarrerak eta laneko erreferentziak ez ezik, autoestimua, laguntza sareak eta kide sentimendua ere ematen dizkie. Hori guztia, aldi berean, esperientzia arduratsu eta kontzienteetan interesa duten emakume bidaiariak hartzen dituen ingurunean gertatzen da, kulturarteko bizikidetzan baliotsua eta sakonki humanoa sortuz.

Hostela Errekalde auzorantz ere proiektatzen da, jarduera irekiekin dinamizatuz, ekitaldi, tailer eta tokiko negozio eta eragileekin lankidetzan aritzeko espazioen lagapenarekin. Hala, LaMiaren inpaktuak indibiduala den hori gainditzen du, lurralde mailan jardunez, harreman komunitario inklusiboagoak sustatuz eta kohesio soziala indartuz. Egoera zaurgarrian dauden emakumeak turistekin eta auzoko egiturarekin konektatzean, proiektuak hesi



Bere indarra  
abegitasuna,  
generoa, inklusioa  
eta lurraldea  
proiektu beraren  
barruan  
bateratzeko  
gaitasunean datza




sinboliko eta materialak hausten ditu, eta hiria zaintzeko, eta enpatia eta ekitatea oinarri hartuta bizitzeko modu berriak proposatzen ditu. Logika zirkular hori –harrera egitea, ahalduntzea, konektatzea– da Aldaketaren Teoriaren bihotza.

Azken batean, LaMia BBK Women Hostel benetako eragin soziala duen turismo eredu erreplikagarria da. Bere indarra abegitasuna, generoa, inklusioa eta lurraldea proiektu beraren barruan bateratzeko gaitasunean datza. Turismoa eta jendartea, hiritarra eta gizatiarra, bereizi beharrean, LaMia dena elkartzen du espazio abegitsu eta eraldatzailean. BBKren eta Bizitegiren inplikazio aktiboarekin, eta Seed Capital Bizkaia-aren finantzaketarekin, proiektua elkarlanaren adibide

da Bizkaiko inpaktu-ekosisteman, eta erakusten du posible dela pobrezia aurre egitea, desberdintasunak murriztea eta genero berdintasunerantz aurrera egitea, soluzio sortzaile, jasangarri eta ongizate kolektiboarekin erabat konprometituen bidez.



04.



# Ekarpena inpaktu- ekosistemari.

---

## Impact Week 2024

2024ko azaroaren 27tik 29ra, Bilbo inpaktu inbertsioaren Europako erdigune bihurtu zen, Impact Europek (lehengo EVPA) antolatutako eta Seed Capital Bizkaiak lurraldean batera egituratutako Impact Week-en ospakizunari esker.

Ekitaldi horrek –orain arteko handiena– inpaktu ekosistemako 60 herrialdetako 920 parte-hartzaile bildu zituen: funtsak eta fundazioak, gizarte-enpresak, erakunde publikoak eta korporazioak. Hiru egunez Bilbok 87 saio, 272 hizlari (110 CEO) eta 12.000 konexio profesional baino gehiago jaso zituen app ofizialaren bidez.

### Nazioarteko erakusleihoa Bizkaiarentzat

Seed Capital Bizkaiaren konpromisoari esker, ekitaldiak aukera eman zuen giza inpaktua duten finantzetan lurraldearen ibilbide aitzindaria ikusarazteko. “From Bilbao to Europe” eta “20 Years Bold” saio espezifikoak antolatu ziren, baita aurretiko programazioa, gaikako newsletter-ak eta Europa osoan “Bilbo efektua” handitu zuten podcastak ere.

Gainera, hainbat espazio garatu ziren, hala nola Youth Hackathon Mondragon Unibertsitatearekin, jarduera paraleloak BATen (B Accelerator Tower), eta komunikazio hedapen horrek 70 inpaktu baino gehiago sortu zituen hedabideetan, eta engagement tasa % 11,9koa izan zen LinkedInen, sektoreko batez bestekoa bikoiztuta.

PARTE-HARTZAILEAK

920

SAIOAK

87

HIZLARIAK

272

CEO-AK

110

KONEXIOAK APP OFIZIALERA

12.000

Bilbo inpaktu-  
inbertsioaren  
Europako erdigune  
bihurtu zen Impact  
Week-en  
ospakizunari esker.



## Impact Week 2024

### Ekitalditik haratago: ekosistemaren indartzea

Seed Capital Bizkaiaren parte-hartzeak, lurraldea nazioarteko erreferente gisa jartzeaz gain, sareak indartu zituen, kapitala erakarri zuen eta tokiko ekimen berriak inspiratu zituen, eta zuzenean lagundu zuen 17. GJH (Helburuak lortzeko aliantzak) betetzen.

Impact Week 2024, zalantzarik gabe, Bizkaiak ekonomia inklusiboago, jasangarriago eta pertsonengan zentratuagoranzko aldaketa gidatzeko egindako apustu sendoa islatzen duen mugarria da.



Seed Capital Bizkaiaren parte-hartzeak, lurraldea nazioarteko erreferente gisa jartzeaz gain, sareak indartu zituen, kapitala erakarri zuen eta tokiko ekimen berriak inspiratu zituen.

---





# Partaidetuen inpaktua.


---

## Inpaktua eta GJH

FEISen partaidetuek 10 GJHri laguntzen diete, eta horietatik 2 aurten sartu berri dira (2. GJH eta 17. GJH), eta ez dago biri buruzko informaziorik (1. GJH eta 5. GJH), 2025ean atek ireki zituen LaMía ostatuko jarduerari baitagozkie.

Lagundutako proiektuen % 40ak ingurumenarekin lotutako helburuak ditu (11. GJHa eta 12. GJHa).

Horiek inbertsioaren % 20 dira, eta gainerako % 80ak helburu sozialak ditu ardatz.



# Zero gosea

2 HAMBRE  
CERO



Enpresa  
partaidetuak


COOMETAS

Lotutako fakturazioa

**217.759 €**

Onuradunak

**+500**



**Coometas giza-enpresak zuzenean laguntzen dio Garapen Jasangarrirako 2. Helburuari (Zero gosea), elikadura arloko laguntzaren prestazioa eraldatzen baitu, laguntza eredu estigmatizatzaileetatik esku hartze digital, duin eta eraginkorrera.**

Bere aplikazioaren bidez, gizarte-erakundeek, kalteberatasun-egoeran dauden familiek hurbileko saltokietan trukatu ditzaketen bonu digitalak jaulki ditzakete.

Sistema horrek onuradunen autonomia sustatzen du, «gosearen ilara» ospetsuak saihesten ditu, tokiko ekonomia indartzen du eta elikagaiak alferrik galtzea murrizten du, soberako elikagaiak arrazoizko prezioetan eskaintzen baititu.

2024an, Coometas A+Familiak bezalako erakundeekin lankidetzan aritu da, 115 familiari zuzenean lagunduz, eta horiei 5.323 elikagai lote eman zaizkie, 2.507 eskaritan banatuta, oinarrizko elikadura erregularra lortzeko aukera duten 500 pertsona baino gehiagori mesede eginez.

## Osasuna eta ongizatea

3 SALUD  
Y BIENESTAR



Enpresa  
partaidetuak

EVOLV

IMPULSO COGNITIVO

INSULCLOUD

UBIKARE

Lotutako fakturazioa

**3.884.604 €**

Onuradunak

**8.530**

**Evolv, Impulso Cognitivo, Insulcloud eta Ubikare gizartean eta osasunean eragina duen berrikuntza teknologikoa txertatzen duten lau startup dira.**

**Evolv** soluzio digitaletan ari da lanean osasun mentala hobetzeko, eta 2024an 107 zentrotan erabili zen soluzio hori.

**Impulso Cognitivo** gaitasun kognitiboak eta hezkuntza arloko inklusioa sustatzeko tresna teknologikoetan zentratzen da. 2024an, hirugarren adineko 3 zentrok eta hirugarren sektoreko erakunde batek erabiltzen zuten, 86 onuradunekin.

**Insulcloud**, 2014an sortutako health tech-ak, AEBetan merkaturatzeko FDA baimena jaso zuen Insulclock CAP gailu adimenduna garatu zuen 2024an. Ikerketek erakusten dute intsulina injekzioekiko atxikimendua % 13,5 hobetzen duela eta urtean ia 1.000 USD aurrezten dituela, batez beste,

paziente bakoitzeko. 2024an, 26 ospitalek erabiltzen zuten produktua, eta 3.600 pertsonari egiten zieten mesede.

Azkenik, **Ubikare**, teknologia lagunduaren bidez adinekoak zaintzeko soluzioetan espezializatua, ongizatean eta autonomian duen ikuspegiarengatik nabarmentzen da. 2024an 987 pertsona artatzen zituen Homecaren bidez, eta 2.669 online tresnaren bidez. Erakundeak egindako ikerketa baten arabera, erabiltzaileen % 80k adierazi dute Ubikareren zerbitzuari esker euren ongizatea hobetu dutela.

FEISen partaidetu horiek berariaz laguntzen dute 3.4 (heriotza goiztiarra heren bat murriztea prebentzioaren eta tratamenduaren bidez, eta osasun mentala eta ongizatea sustatzea) eta 3.8 (osasun estaldura unibertsala) helburuetan.

## Kalitatezko hezkuntza

4 EDUCACIÓN DE CALIDAD



Enpresa partaidetuak

IED-KUNSTHAL

Lotutako fakturazioa

**2.450.954 €**

Onuradunak

**N/A**

**IED Kunsthal Bilbao, Istituto Europeo di Design-en Bilboko diseinu, moda eta arte eskola da, eta ikuspegi humanista eta esperientziala, berrikuntza profesionala eta bezeroentzako benetako proiektuetan lan egiten duten talde txikiak ditu ezaugarri, Zorrotzaurren duen egoitzatik.**

2024an, eskola horrek bere Institute Workshop Week antolatu zuen, diziplina arteko esperientzia bizia. Bertan lau gradutako - Produktuaren Diseinua, Grafikoa, Moda eta Barnualdeak- 220 ikaslek hamaika workshopetan hartu zuten parte, profesionalen zuzendaritzapean, oinetakoak berregitea, artozko antzinako ehuna, eszenografia edo objektuei aplikatutako soinu-diseinua bezalako teknikak garatuz. Gainera, Moda Diseinuko Graduaren hirugarren urteak Temuak proposatutako "Renewed" erronkari erantzun zion, edizio mugatuko upcycling kapsularekin,

soberako ehunak erabiliz jasangarritasuna sustatuz. Eskolak, 2024ko uztailan, Degree Showaren barruan egindako lehen Fashion Showa ere egin zuen, hainbat diziplinartako amaierako 20 proiektu baino gehiago erakutsiz, eta Euskal Herrian prestakuntza sortzaile eta jasangarrian erreferente gisa duen posizioa sendotuz.



# Lan duina eta hazkunde ekonomikoa



058

Enpresa partaidetuak

KOIKI

URBEGI IPM

URBEGI INSERCIÓN

ITSASLUR

Lotutako fakturazioa

**5.837.154 €**

Onuradunak

**378**

**Koikik, Urbegi IPMk, Urbegi Inserción-ek eta Itsasurrek zuzeneko giza eragina duen kalitatezko enplegua sortzen dute.**

**Koikik** azken milia jasangarriko logistika sustatzen du, bazterketa egoeran dauden edo desgaitasuna duten tokiko banatzaileen sarearen bidez, laneratzea eta CO<sub>2</sub> emisioen murrizketa konbinatuz; 2024an 60 mikrozentrotan baino gehiagotan jardun zuen 35 probintzian, eta ia 200 pertsonari eman zien lana. Urbegi Taldeari lotutako Urbegi IPMk eta Urbegi Inserción-ek, enplegu babestuak eta laneratzekoak eskaintzen dituzte industria sektoreetan, hala nola automobilgintzan eta aeronautikan, eta Bizkaian laneratzearen alde egiten dute, zerbitzu teknikoan eta lurralde mailako sareen bidez, hala nola Enkarterriko Behatokiaren bidez.

**2024an, Urbegi inserción-ek** bazterketa arriskuan zeuden 40 pertsonari ematen zien enplegua

% 38ko soldata alde positiboarekin, merkatu arruntarekin alderatuta.

**Bestalde, Urbegi IPMk** desgaitasuna zuten 114 pertsonari ematen zien lana 2024an, eta % 37ko soldata diferentzial positiboa zuen.

**Azkenik, Itsaslur Muskizen** (Bizkaia) dagoen Nekazaritzako Elikagaien Berrikuntza Zentroa da, Siderurgia Integraleko Langileen Fundazioak sustatua. Nekazaritzako eta heliziako produktuen ekoizpenean, eraldaketan, banaketan eta merkaturatzean espezializatuta dago, ingurumen-, kultura- eta gizarte-jasangarritasunarekiko konpromiso nabarmenarekin. Bazterketa arriskuan zeuden 10 pertsonari ematen zien lana FEISek lagundutako jardueran.

Horiek guztiak erakusten dute giza ekintzailtzak lan aukera duinak, jasangarriak eta inklusiboak aktiba ditzakeela, 8. GJHari ekarpen argia eginez.

# Desberdintasunen murrizketa



0  
510

Enpresa  
partaidetuak

IMPULSO COGNITIVO

URBEGI IPM

URBEGI INSERCIÓN

KOIKI

COOMETAS

LAMIA

ITSASLUR

Lotutako fakturazioa

**6.079.034 €**

Onuradunak

**1235 \***

\* Oraindik Hostel Boroblitzen /  
LaMia-ren datuak izan gabe.

**Koiki, Itsaslur, Impacto Cognitivo, Borobiltzen (LaMia Ostatua), Urbegi Inserción, Urbegi IPM eta Coometas giza enpresek modu aktiboan laguntzen diote 10. GJHari (Desberdintasunen murrizketa), gizarteratzea, enplegu duina eta funtsezko ondasunak ekitatez eskuratzea sustatuz.**

**Koikik**, bazterketa arriskuan dauden pertsonentzat enplegua sortzen duen azken milia jasangarriko banaketa eredu eskaintzen du, logistika, jasangarritasuna eta giza ekonomia konektatuz.

**Itsaslurrek**, Pobeñan dagoen baratze sozialak, laneratzea bultzatzen du nekazaritza ekologikoaren bidez, inguruko pertsona zaurgarrien kontratazioa lehenetsiz.

**Urbegi Inserciónek eta IPMk** enplegu eta laguntza ibilbideak eskaintzen dituzte desgaitasuna duten edo laneratzeko zailtasun bereziak

dituzten kolektiboentzat, lana lortzeko aukera berdintasuna bermatuz, **Hostel Borobiltzen-ek (LaMia)** bezala. Azken horrek enplegu aukera eskaintzen die gizarteratzeko eta laneratzeko prozesuan dauden emakumeei.

**Impacto Cognitivok**, berriz, teknologiatik eta hezkuntzatik dibertsitate funtzionala duten pertsonen inklusioa indartzeko soluzio berritzaileak lantzen ditu.

Azkenik, **Coometasek**, bonu digitalen bidez elikadurarako sarbide duina eta autonomia bermatzeaz gain, familia zaurgarriak euren auzoko bizitzan gizarteratzea ere sustatzen du, tokiko saltokiekin duten erlazioa sendotuz eta laguntzei lotutako estigma murriztuz. Elkarrekin, ekimen horiek desberdintasunaren dimentsio ugarietara egiten diete aurre, lanetik hasi eta elikadura eta komunitate alorretaraino.

## 05. Partaidetuen inpaktua

# Hiri eta komunitate jasangarriak

11 CIUDADES Y COMUNIDADES SOSTENIBLES



Enpresa partaidetuak

KOIKI

COOMETAS

Lotutako fakturazioa

**1.199.010 €**

CO2 murrizketa

**506 Tn \***

\* Datu horiek Koikin baino ez daude eskuragarri.

**Koiki eta Coometas giza enpresek modu aktiboan laguntzen diote 11. GJHari, hiri jasangarriagoak, erresilienteagoak eta emisio txikikoak sustatuz.**

**Koikik**, ohiko banaketa kutsatzaileak, oinez, bizikletaz edo ibilgailu elektrikoekin egindako azken miliako entregengatik ordeztzen dituen hiri logistikako eredua garatzen du. Eragiketa deszentralizatu horrek, bazterketa-arriskuan dauden pertsonen kudeatutako hiri-mikrohuben bidez, trafikoa eta kutsadura akustikoa murrizteaz gain, salgaien garraioari lotutako CO<sub>2</sub> emisioa ere murrizten du.

Koikik, aurreko ekitaldiarekin alderatuta CO<sub>2</sub> isurketak 70 tona gehiago murrizten lagundu du. Bestalde, Coometasek ekonomia zirkularra bultzatzen du, soberan dauden elikagaien aprobeixamendua errazten baitu,



bonu solidarioen sistema digital baten bidez. Seed Capital Bizkaiak ez du horri buruzko datu zehatzik, baina onartzen du elikagaiak alferrik galtzea saihesten duenez –Europar berotegi-efektuko gasen isurketa-iturri esanguratsua da–, Coometasek zeharka laguntzen duela elikadura-sistemaren ingurumen-inpaktua arintzen.

Bi ekimen horiek berrikuntza soziala eta ingurumen jasangarritasuna uztartzen dituzte.

## Ekoizpen eta kontsumo arduratsuak



Enpresa partaidetuak

APLANET

BASQ

DELIKATETXE

COOMETAS

Lotutako fakturazioa

**2.118.537 €**

Onuradunak

**N/A**

**Coometas** eta **Delikatetxe** ekimenez zuzenean lagutzen dute 12. GJHaren 12.3 helburuan, elikagaiak alferrik galtzearen aurka borrokatuz.

**Delikatetxek** estetikarengatik edo gehiegizko ekoizpenarengatik baztertutako elikagaiak berreskuratzen ditu, eta bigarren bizitza ematen die gourmet elaborazio gisa. Dagoeneko egonkor jarraitzen dute 2023an saltzen zituen 10 produktuek.

**Basq Sneakersek**, 12.5 helburuarekin lerrokatuta, ekonomia zirkularra sustatzen du material birziklatu eta birziklagarriekin fabrikatutako zapatilak diseinatu, ehungintzaren sektorean hondakin gutxiago sortuz.

Bestalde, **APlanetek** zeharkako eragina du, teknologia eta aholkularitza ematen baititu erakundeek jasangarritasuna kudeatu eta hobetu dezaten, 12.6 helburuari lagunduz.

Helburu horren xedea da enpresak, bereziki enpresa handiak eta nazioz gairik, bultzatzea jardunbide jasangarriak har ditzaten eta txostenak aurkezteko zikloan jasangarritasunari buruzko informazioa txerta dezaten. 2024an 91 enpresari eman die laguntza.



▲ Basq

## 05. Partaidetuen inpaktua

# Aliantzak helburuak lortzeko

17 ALIANZAS PARA LOGRAR LOS OBJETIVOS



Enpresa partaidetuak

COOMETAS

Lotutako fakturazioa

**20.000 €**

Erakunde aliatuak

**+450**


**2023-24an, Coometasek nabarmen indartu zuen 17. GJHa, bereziki 17.17 helburua, hirugarren sektoreko eta tokiko merkataritzako eragile anitzekin aliantza eraginkorrak ezarriz.**

Aldi horretan, Coometas hainbat gizarte-erakunderekin eta GKerekin lankidetzan aritu zen, hala nola Caritas, Acción contra el Hambre, Gurutze Gorria, YMCA eta A+ Familias, gizarte-sektoreko beste erakunde batzuen artean.

Bestalde, sarea handitu egin zen, Espainiako 35 hiri baino gehiagotan banatutako 450 tokiko saltoki atxiki baino gehiagora iritsi arte, eta, hori esker, auzoko ekonomiak dinamizatu eta laguntzak modu duin eta eraginkorrean bideratu ahal izan ziren.

Oro har, aliantza publiko-pribatu horiek eta gizarte zibilarekiko aliantza horiek plataformaren giza eragina handitu dute, esperientzia teknologikoa,

baliabideak lortzeko estrategiak eta lurraldearen presentzia konbinatuz, gizarte ekintzako eredu kolaboratiboa eta eskalagarria sustatzeko.





06.



# Perspektibak.

---

## Finkapenaren urtea

**2024an, Ekintzailtza eta Giza-Inpaktuaren Funtsa (FEIS) inbertsio katalitikorako tresna estrategiko gisa finkatu da, eraldaketa sozial, ekonomiko eta ingurumenekoaren zerbitzura.**

17 giza-enpresatan egindako 2,7 milioi eurotik gorako inbertsio metatuak Seed Capital Bizkaiak ekintzailtzarekin duen konpromiso iraunkorra islatzeaz gain, agerian uzten du FEISek gaitasuna duela kapital konbentzionalak artatzen ez dituen sektoreetan eta herrietan eragina duen eragile mobilizatzaile gisa jarduteko.

FEISek inpaktu-funts publiko gisa duen rol bereizgarria erakutsi du: hasierako ariskuak hartzen ditu sortzen ari diren, eta berritasunarengatik edo kolektibo kalteberetan

zentratuta egoteagatik askotan inbertitzaile pribatuen babesik ez duten enpresa-ereduetan. Horri dagokionez, bere “kapital katalitiko” izaera -funtsezko kontzeptua inpaktuaren literaturan- arlo ekonomikoa eta soziala hasieratik elkartzen diren potentzial eraldatzaile handia duten proiektuen aktibazioan gauzatzen da.

Egiteko horrek are garrantzi handiagoa hartzen du GIINek (Global Impact Investing Network) edo ELGAK funts publikoek “kapital paziente” eta blended finance aktibatzaile gisa duten garrantzia nabarmentzen duten testuinguru globalean. Esparru horretan, FEIS aitzindaria da Espainian, eta erreferentea European giza-ekintzailtzaren errealitatera egokitutako tresna malguen erabileran.

Etorkizunean, eta Impact Europeren, FEDEAren eta

**Nazioarteko testuinguruak inpaktu-inbertsioaren gorakada argia erakusten du funtsezko tresna gisa.**

**FEISek inpaktu-funts publiko gisa duen rol bereizgarria erakutsi du.**

Europako Batzordearen gomendioen ildotik, erronka ez da soilik gehiago inbertitzea, FEISek lagundutako giza-enpresetara kapital gehiago erakartzea baizik. Horrek esan nahi du eragile pribatuekin batera inbertitzeko ereduetan aurrera egin behar dela, tresna hibridoak aztertu behar direla, eta kasu arrakastatsuak ikusarazi, inbertsioaren ekosisteman konfiantza sortzeko.

Nazioarteko testuinguruak inpaktu-inbertsioaren gorakada argia erakusten du erronka sistemikoei aurre egiteko funtsezko tresna gisa. Impact Week 2024 Bilbon egitea eta tokiko eta nazioarteko sareak gero eta gehiago artikulatzea lurraldearen potentzialaren seinale argiak dira. FEIS, tresna publiko aitzindaria den eta ibilbide finkatua duen aldetik, posizio pribilegiatuan dago ekonomia inklusiboagoa, jasangarriagoa eta pertsonengan zentratuagoa egongo den trantsizio hori gidatzeko.

**FEIS, tresna publiko aitzindaria den eta ibilbide finkatua duen aldetik, posizio pribilegiatuan dago ekonomia inklusiboagoa, jasangarriagoa eta pertsonengan zentratuagoa egongo den trantsizio hori gidatzeko.**

Finantzaketaz haratago, FEISen rola berrikuntza eta justizia soziala uztartzen dituzten soluzioekiko konfiantza da. Datozen urteetarako erronka inpaktu hori handitzea izango da, aliantzak adostuz, kapitala aktibatuz eta arlo publikotik zorrotasunez, anbizioz eta benetako inpaktuekin inbertitzea posible dela erakutsiz.

